



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abagadune 'egokiera, une aproposa'	«Marcivaldok ere esan nahiko zuen bere iritzia, baina ez zuen abagadunerik aurkitzen.»	(131)
abegi on 'harrera ona'	«Ordu haietan, leiho batetik katuren batek burua agertzen badu, abegi onez hartutako laguna izango da beti...»	(124)
adabegi 'enborreko kimu sorlekua'	«...obra bateko hesia pinu egur berriaz egina zen, harribitxiak bezalako adabegiak zeuzkan...»	(120)
afanean 'jo eta ke lanean'	«...han espaloian afanean dagoen morroi batek ematen dituen palakada traketsen pean.»	(32)
ahuspez 'ahoz behera'	«Bere burua ahuspez bota lurrera, eta han non heldu zuen!»	(127)
aitzitik 'ordea, haatik'	« Aitzitik , abarrean horitzen den hostoa, teilari itsasten zaion luma, horiek ez zioten behin ere ihes egingo...»	(15)
albait 'ahalik eta'	«Marcivaldo, ahaleginak eginez begiak albait gutxien irekitzeko...»	(24)
albitz 'saralea (belar mota)'	«Behi taldeak kaletik urruntzen jarraitzen zuen, albitz usain eta zintzarri hots gezurti ahulak eramanez atzetik.»	(67)
aletu 'bota'	«...ziztaturiko partea ferekatuz eta madarikazio nahasi sorta bat aletuz .»	(39)
amarru 'engainua, tranpa'	«Untxia bueltatu egin zen, inguruko beste amarru arrastoak bilatu zituen (...) zein komeni zitzaion aukeratzeko.»	(76)
amarrukeria 'maltzurkeria'	«Garai batean janaririk sinpleenek ere azpijan, amarrukeria eta mehatxuak ezkututzen zituzten.»	(87)
amu 'arrantzarako metalezko pieza'	«Ura benetan ur eta arrainak benetan arrain diren leku bat bilatu behar diat – esan zion bere buruari–. Han botako diat amua .»	(88)
antzu 'idorra, emankorra ez dena'	«...kaleko zuhaitzian barrena luzatzen den lur antzu zakarrean...»	(16)
apar 'bitsa, urar azalean sortzen dena'	«...ur jausia bezain garaia, bizarginak brotxaz nahasten duen katiluko apar zuria bezalakoa.»	(115)
arakatu 'ikertu'	«...semeetako bat joaten zen teilatua arakatzera : burua pitin bat bakarrik ateratzen zuen argizulotik...»	(28)
arbi 'baratz landare jangarria'	«Eta hiru gauetan segidan Marcivaldok lukainka eta arbiak aurkitu zituela afarian.»	(51)
arrabete 'esku irekiaren neurria'	«...ez zuen ezer ikusten. Ezertxo ere ez. Ezta sudurretik arrabetera ere.»	(79)
arranditsu 'harrokeriazkoa'	«...gero esku bat altxatu eta haietako bat seinlatu zuen, keinu motel eta arranditsu batez.»	(126)
atorra 'alkandoraren antzekoa'	«Nola jakin, atorra zuri horren azpian ezkutaturik, hiria lehengo bera ote zen ala beste baten ordeaz aldatu ez ote zuten.»	(32)
auskalo 'batek daki'	«...halako espora bolada bat gertatu zen, haizeak auskalo nondik ekarria, eta zizak hazi ziren bertan.»	(15)
babolio 'tentela, papaua, inozoa'	«Harriak erortzen dira! Eh, goiko hori! Babolioa halakoa!»	(94)
bafatu 'airean indarrez bota, zarataz'	«—Zoazte orain hemendik! — bafatu zuen Marcivaldok bere hareazko sarkofago azpitik—.»	(45)
banandu 'bereiztu, apartatu'	«Ez zeukan bihotzik berak sortutako landare hartatik banantzeko , halako fotuna handiaz atera baitzuen aurrera...»	(102)
barrabaskeria 'umeen okerkeria'	«...edo bitarte horretan umetxoek dudarik gabe eginak zituzten barrabaskeriak ; baina, batez ere, kanpoko behelainoagatik...»	(70)
barreiaturik 'sakabanaturik'	«Zerua, hala ere, ez zegoen oskarbi: hodei mataza batzuk, beltzak, barreiaturik zeuden apur bat hemen, apur bat han.»	(101)




behinola 'behin batean, aspaldi'	« Behinola galdu egin zen: sasiz beteriko bazter malkartsu batetik zebilen bueltaka...»	(88)
beita 'amuko janaria'	«...hari luze mehe hura, amua eta beita ezarrita, behera eta behera jaitsi zela arrainontzian sartu arte.»	(126)
bekosko 'betoskoa, haserre aurpegia'	«Zutik zegoen, haien aurrean, bekosko , begi gaiztoz.»	(67)
bereko 'egoista'	«...batzuen ustez aingeruen parekoa zen, besteen ustez zikoitza eta berekoia .»	(130)
bikor 'bihia, garaua, alea'	«...enbor azal, ezkata, bikor eta hosto-zainez osaturiko hiri bat, barniz, galipot, kristal eta igeltsuzko hiriaren azpian.»	(120)
bilbe 'trama, zeharkako hari multzo	«...alde orotan zebilen jira-biran, eta bere bilbea meheago agertzen zen, zulo baten antzera...»	(94)
birao 'maldizinoa, hitz gorria'	«...Marcovaldo ez zen ausartzen aurka egiten bezeroek ospitaleko gela handi hartako beste oheetatik jaurtitzen zizkioten biraoei .»	(41)
bizi 'arina'	«...murgilduta baitzeuden beren munduko larre, busti, mendiko laino eta erreka bizietako ibietan.»	(64)
blai eginda 'busti-bustirik'	«...bat-batean burutik oinetara bustirik eta soinekoak blai eginda aurkitzen den gizona bezain harrituta.»	(98)
bolandera 'suziria'	«...begien aurrean iturriko zirristak bat-batean lehertzen ikustean, urezko bolanderak bailiran.»	(24)
buhardila 'teilatupeko etxebizitza txikia'	«...eta buhardilako neska eraztun hotz itsugarri hartan itzaltzen zen...»	(93)
burrunba 'zarata handia, urruma'	« Burrunba bat aditzen zen haren atzean; atzera begiratu eta etxeko guztiak ikusi zituen...»	(108)
dardarizo 'dardarazko mugimendua'	«...eta ile sortatxo batzuk irteten zitzaizkion sare zuloetatik kanpora, dardarizo arin batez mugituak.»	(70)
deliberatu 'pentsatu'	«...eta bere geralekua hurrengo zela deliberaturik , denbora justuaz irteerara korrika egin eta jaitsi egin zen.»	(80)
deuseztu 'suntsitu, ezereztu'	«...kanpoko mundua deuseztu zuen aldaketak bere lantegiari bakarrik barkatu izan balio bezala.	(32)
dizdizari 'diz-diz dagoena, biztu-itzali'	«...semaforo ilargi faltsu dizdizari hura, bere horia, horia, horia aletzen jarraitzen zuena.»	(21)
doan 'dohainik'	«...orritxo hori-urdira azaltzen zuenak erakusgarri bat eskura zezakeen doan .»	(111)
dohain 'oparia, doea'	«Haizeak, urrundik etorrita, ohi ez bezalako dohainak ekartzen ditu, nahiz eta (...) batzuk baino konturatzen ez diren...»	(15)
dohatsu 'zorionsua'	«...gogoan bere seme dohatsua harturik zebilen Marcovaldo...»	(66)
egundoko 'itzelezkoa, haundia'	«...begiek zulatu ezin zuten egundoko W baten ostean desagertua zen ilargiaren pareko neskatilaren leihotxo.»	(96)
elgorriak joa 'elgorri gaisotasuna duena'	«...beste bat mantxaz betetzen ari zela elgorriak jotako haurren masailaren antzera...»	(97)
emetu 'bigundu, laundu, baretu'	«...kaleetako hutsunea betetzen zuen sargoriak emetuta bezala desegiten ziren...»	(63)
enbolo 'zilindro erako diskoa'	«...inork inoren saihestetan emandako ukondokadek bultzatuta, enbolo baten etengabeko kolpeak bailiran.»	(105)
eragabeko 'indefinitua, zehaztu gabea'	«...goian argi berde-gorriak agertzen ziren, izar multzoen antzera eragabeko irudietan antolatuta.»	(83)
eraitsi 'jetzi, esnea atera'	«Arratsaldero, esnea eraisten dutenei baldeak eraman abere batetik bestera, eta gero esne-ontzietara bota...»	(67)




erlaiza 'hormetako irtenunea'	« Erlaiz batean jartzeko aproba egin zuten, katuak bezala ote zebilen ikustearren...»	(75)
ernegu 'sumindura, haserrea'	«...eta ez erlojuaren soinuaz edo Paolino jaioberriaren garrasiez eta neure emazte Domitillaren erneguaz .»	(19)
errainu 'dizdira'	«...eta leihatilako argi errainuan urre kolorez erortzen zen hautsa, eta gaueko eztulak.»	(58)
erratz 'ginarra'	«Makina hura, erratz handiak jiraturaz, errebuelta hartzen ari zen ordurako.»	(33)
erreinu 'erresuma'	«Haien erreinuak bazituen halako bazter, zeremonia eta usadio batzuk berari ezagutzen uzten ez zizkietenak.»	(125)
erreparatu 'ohartu, somatu'	«...eta ordura arte inork erreparatu ez bazien ere, orritxo horiek berehala iritsi ziren irrika handiz bilatzen zen harrapakina izatera.»	(112)
erresumin 'sentsazio jasangaitza'	«Piska batean, hori bai, ziztadaren erresuminaz kexatu zen.»	(39)
erreten 'ubide txikia, kanala'	«Marcovaldok gereziondo bat ikusi zuen erreten batean, eta ondoan grisezko gizonak...»	(61)
erretilu 'bandeja'	«...frakez jantzitako zerbitzariak guante zuriz estalitako atzamarren gainean orekan zeramatzaten zilarrezko erretiluetan .»	(125)
erretxinduta 'pikatuta'	«...inortxo ere ez duk bizi hemen! –erantzun zuen Marcovaldok erretxinduta...»	(59)
errieta egin 'agiraka egin, haserre egin'	«Lantegian, errieta izugarria egin zioten isunagatik.»	(28)
errotarri 'errotta edo eiharako harri birib'	«Marcovaldoren burmuina jira eta bira ihardun zen egun osoan, errotarria bezala.»	(28)
eskumenean 'helnenean, eskuragarri'	«...une berean platano sorta bat agertzen zitzaien eskumenean , eta hartu egiten zuten...»	(109)
esnai 'itzarrik, esna'	«Zigarro bat bilatu zuen patrikan, esnai segitzearren, baina ez zeukan pospolorik.»	(23)
esparru 'eremu mugatu edo itxia'	«Aldi berean, uzta biltzeko esparrua ere zabaltzen zen, beste kale batzuetako atarietara iritsiz.»	(112)
etsi gabe 'temati'	«...eta bertantxe egiteko zioen etsi gabe , haien eserlekuan bertan...»	(38)
ezin gehiago eztabaidan 'ahalean'	«Baina su eta gar ari ziren ezin gehiago eztabaidan, eta ezin berataz ohartu.»	(20)
ezkabitsu 'larruko gaisotasuna duena'	«...etxeko katuak eta katu abandonatuak, katu lurrintsuak eta katu ezkabitsuak zeuden.»	(128)
feldelxo 'zapi batez bildutakoa'	«...eskua botatzen die atzeko patrikan, feldelxo batean bildurik, beti eramaten dituen kubiertoiei...»	(49)
firrinda 'txistua bezalako hotsa, soinu'	« Firrinda hura, putzada arnasgoratsu latz bat eta aldi berean etengabeko urratu bat eta are kraskada bat irudi,...»	(23)
gailendu 'nagusitu'	«...beste soinu guztien gainetik gailentzen zena, ezkil hots herdoildu haren gainetik izan ezik, hain zuzen ere.»	(64)
galbahe 'bahea, iragazteko tresna'	«...zelai soil batean zabaltzen zen; bertan galbahe handi bat zegoen eraikita.»	(44)
galipot 'bikea, petroliozko orea'	«...enbor azal, ezkata, pikor eta hosto-zainez osaturiko hiri bat, barniz, galipot , kristal eta igeltsuzko hiriaren azpian.»	(120)
garabi 'pisuak jasotzeko gailua'	«Aho erraldoi bat zen, hortzik gabea, metalezko lepo luze batetik zabaltzen zena: garabi bat.»	(110)
garrasi 'oihu bizia'	«...eta ez erlojuaren soinuaz edo Paolino jaioberriaren garrasiez eta nere emazte Domitillaren erneguaz.»	(19)




gatzatu 'gogortua, trinko bihurtua'	«...eta bere auzoko itzala igerri zuen paisaia gatzatu hartan: eta berunezko landa bat iruditu zitzaion...»	(59)
gerruntze 'estutzeko janzkia' (<i>faja</i>)	«...jertse zulatuaren artetik bidea eginez, oinazetan zeukan gerruntzeko zati bat jarri zuen agerian.»	(38)
girlanda	«...eta zero osoa argindar-hari eta antena gainetik betetzen zuten girlandak osatuz luzatzen zuen...»	(116)
goata 'kotoia'	« Goata zurizko bizarrak kilimak egiten zizkion, baina eztarria aire hotzetik babesteko balio zion.»	(137)
gogaitu 'gogoa galdu'	«...zerbaitek gogaitzen zuela buruak ematea esaterako, lorik ez egiteko.»	(22)
gosea berdindu 'gose sentazioa kendu'	«Eta horrela, hosto bat hemen, azal bat han, petalo bat harantzago, animaliatxoari gosea berdintzea espero zuen.»	(72)
harandia 'urrun, harago dagoena'	«Afarian, Marcovaldok ez zuen platerera begiratzen, leihoko kristalez haraindi baizik.»	(99)
harzola 'harrizko zorua'	«...entzuten ari zen espaloiko harzolatik behe-leihoetan barrena bere etxe azpiko pisuko hondoraino (...) iragazten zen...»	(63)
haztamuka 'ukituz somatu'	«Gozonak laztan egin zion bizkarrean, eta bitartean haztamuka ibili zuen lodi ote zegoen ikustearren.»	(70)
hegazterren 'hegazti mota' (<i>pavo</i>)	«...oihal barrek hegazterrenaren luma-isatsetakoak bezalako tolesturak zabaltzeko...»	(105)
helkada 'orakada, gogor heltzea'	«Besoaz babestu zen, baina helkada sentitu zuen...»	(40)
hitsa 'tristeia'	«...Marcovaldori iruditu zitzaion bere inguruko mundu hits hutsala ezkutuko aberastasunez oparo bilakatzen zela bat-batean...»	(16)
hondoko 'sakonekoa, barru-barrukoa'	«Pasabide estu baten hondoko zokoraino iritsi ziren, horma itsu mehe batzuen artetik...»	(125)
hosto-abarrak 'hosto-abarren multzoa'	«Indi-gaztainondoen hosto-abarren artera altxatu ohi zituen begiak, lekuri hostotsuenera...»	(19)
hozka 'ausikika, haginka'	«Eta bere barruan halako gaitz ilun misteriotsu bat hozka somatzen zuenetik, gero eta axola gutxiago zion mundu osoak.»	(75)
hutsarte 'hutsik dagoen eremua'	«...orain eraiki egin dute eraikita zegoenaren gainean, eraikitzeko aukera ematen zuten hutsarte guzti-guztietan...»	(123)
ibi 'iraganlekua'	«...murgilduta baitzeuden beren munduko larre, busti, mendiko laino eta erreka bizietako ibietan ...»	(64)
ihar 'argala, zimela'	«...zehaztu ezinezko kolore batez tindatutako adats bat eta esku ihar-ihar bat ikusi ziren.»	(131)
ihia 'paduretako landare mota'	«...lokatz mordoak pilatuak ziren, bai eta haien gainean, hor eta hemen, kainabera eta ihia hazi ere.»	(46)
ihintza 'garoa, goizetan landareek dut	«...hor egotean, gortina eta goardasol ontziaren artean, argia, airea eta ihintza falta baitzituen.»	(97)
ikusbitarte 'ikusmen eremua'	«...itsutuko zituen ezer ez zegoenez gero ordurako, espazioen ikusbitarte zabaltzen zen...»	(94)
ilaje 'ile multzo trinkoa'	«...aski zuen miau bat, ufako bat edo bizkar altxatu bateko ilaje laztua, haien arteko (...) etsaitasunaz konturatzeko.»	(125)
ile motots 'ile multzoa, ugarria'	«...katu lodi bat zen, ile motots urdin argi bat zuena lepoan, eta, dudarik gabe, etxe onekoa.»	(124)
ilunabar 'iluntzea'	« Ilunabarra zetorren aldapetan gora; han behean, auzoa ez zen jadanik nabaritzen...»	(60)
imintzio 'keinua, jestua'	«...eta garrari eta langileen imintzioei begira geratu zen, arreta zertxobait nahastuta...»	(22)




inarrosi 'astindu'	«Baina Marcovaldo ezin zitekeen luzatzen ibili, hotzikara batek inarrosi zuelako...»	(25)
inguratu 'lortu'	«...eta motozikletaren ordez Marcovaldok moto-furgoneta bat inguratu behar izan zuen.»	(102)
ingurumari 'ingurunea, ingurua'	«...bai eta zarata egiteko ahalbidearen beraren gainera ere; soinuek, ingurumari bigundu hartan, ez zuten oihartzunik.»	(31)
iragazia 'filtratua'	«Olio botiletatik ez omen zen olibaren isuri urrezkoa irteten, mando zaharren koipea baizik, behar den bezala iragazia .»	(87)
irauli 'azpikoz gora jarri'	«...gabarra ur jauzitik erori eta irauliko zen, eta bera hondarraren (...) azpian geratuko zen...»	(46)
itzaldu 'desagertu'	«Marcovaldok begiradaz bilatu zituen berriz hegal haiek zeruan, baina itzalduak ziren ordurako.»	(27)
izei 'abetoa, zuhaitz mota'	«Sabaian kristalezko lanpara astunak zeuden, eta izeiko adarrak altuenak zintzilikario distiratsuekin tratatzen ziren.»	(140)
jaio 'trebea, moldatsua'	«...eta liztorrak helkada eman ondoren algodoia alkoholez busti eta igurtzi bat ematen zuen sendagile jaio baten esku trebeaz.»	(39)
jaramonik egin 'kasu egin'	«Eta sukalde ingurutik dei egiten zioten miau haiei jaramonik egin gabe, bere arrantzarako tresnen bila joan zen.»	(126)
jauzi egin 'salto egin'	«...edo teilatuetako pretiletik hegalera edo ur-hodira jauzi leun bat egiteko heldulekuren bat.»	(124)
jeinu 'genioa'	«...eta Marcovaldok zartaka bufatzen zituen gorantz, berehala itzaltzen diren jeinu izpiak bailiran.»	(53)
jelosi 'susmo txarra'	«...aurkikuntza hark jabetzaren zorabioan sartzen zuen orain, eta jelosia eta mesfidantzazko beldurrez betetzen.»	(16)
kaiku 'papaoa, tentela, lerdoa'	«Zeri begira hago, kaiku hori.»	(28)
kakalardo 'kakarraldoa, intsektu hegalarari	«...gero bidea okertu egingo zuen kakalardo galdu baten hegaldiagatik, eta gero geratu zizare baten zulatu...»	(120)
kanila 'txorroa'	«Hala, bada, kanila ireki zuen: zirrist luzeak altxatu ziren maskor, bizar eta zaldien muturzuloetatik.»	(24)
karraska 'karkada, apurtze zarata'	«...etxeko azpiko pisuetatik iritsitako irrati karraskarik motelena ere serenata baten doinua bailitzan belarrietaraten zitzaion...»	(91)
katilu 'kafesnerako-eta ontzi berezia'	«...ur jausia bezain garaia, bizarginak brotxaz nahasten duen katiluko apar zuria bezalakoa.»	(115)
kedar 'gedarra' (<i>hollín</i>)	«...aparraren ostadarra preso hartzen zuen kearen eta kedar aleak preso hartzen zituzten xaboi-urrezko anpuluaren artean...»	(117)
kintala 'ehun libarren pisua'	«Eta, bat-batean, hiru kintal elur jausi zitzaizkion gain-gainera.»	(34)
kirastuta 'hatsa dariona, ustelduta'	«Estalkia kendu eta hildako arratoi bat zegoen, kirastuta .»	(24)
kiribildu 'bildurik bezala egon'	«...Marcovaldok, mugitu gabe, eserlekuan kiribilduta zegoela, aurpegia buruko zimurrean ezarria...»	(23)
kiribilka 'kiribilean, zurrunbilo eran'	«Horrelakoetan, lerro etengabe bat ibiltzen zen kiribilka espaloi eta arkupe guztietatik...»	(105)
kirrinka 'irringa, zaratots ozena'	«Autoa, sekulako kirrinka bat eginez, frenatu egin zen, ia jira oso bat eginik.»	(121)
kizkurra 'jatean zarata egiten duena'	«Muin frijituak ziren, bigun eta kizkurak , hodei mataza bat bezalakoak.»	(51)
komodina 'komoda, sofa mota'	«...eta bere emazte Domitilla, lodi eta moztaka, komodin lokatu baten alde banatan ukondoa jarririk...»	(57)




konkortuta 'okerduraz makurtuta'	«Haren ondoan aguretxo bat jezartzen zen, adabakiz betetako beroki baten barruan konkortuta ...»	(37)
korapilo 'troinua'	«Orain haria kale bateko espaloitik zihoan bidezkoen artean, egindako korapiloak askatzen...»	(127)
kukubilko jarri 'kukulumuxu, pikotxean jarri'	«Zutabe baten gainean kukubilko jarri , eta behekoa ikusten saiatu zen, alde batetik bestera...»	(83)
laiotz 'eguzkirik hartzen ez duen tok	«...eta ikusiz behiak nola mugitzen diren, mantso-mantso, han larrean, eta ur murmurioa entzunez haraneko laiotzean .»	(66)
lardaskatu 'ia puskatua'	«...papera kendu eta egunkari zati lardaskatu hura Rizieri jaunari ematen zion...»	(37)
larre 'zelaia	«Uda hasieran, mendiko larrera bidean, gauez hiria zeharkatzen duten abere taldeetako bat zen»	(64)
lauso 'nahasia, gardena ez dena'	«Baina bere sentimendu hark, halako irudipen lausoetara baino gehiago...»	(32)
lazu 'latz jarria, azkortua'	«...aski zuen miau bat, ufako bat edo bizkar altxatu bateko ilaje lazu , haien arteko (...) etsaitasunaz konturatzeko.»	(125)
lehi 'norgehiagoka'	«Mutiko taldeen artean lehi bizia piztu zen halako garai batean...»	(112)
lema 'untziak gidatzekoa' (<i>timón</i>)	«...urak zeraman gabarra batean hondar azpian estalita, arraunik eta lema gabe.»	(46)
lerratu 'irristatu, pasatu'	«...eta umeak aukera horretaz baliatzen ziren salgaiak apaletara itzultzeko edo beste pertsona batzuen gurditxoetara lerratzeko .»	(109)
lertxuna 'zuhaitz mota'	«Ibai bazterreko ukondo batean, lertxun artean, goarda kapela zeukan morroi bat zegoen, tente, begi gaiztoz hari begira.»	(89)
lilurak aidean 'keinuka ederretsiz' (?)	«Eta ume txikienez zizak zer ziren ez zekitela eta, han aritu zitzairen, lilurak aidean , haien mota ugarien edertasunaz...»	(16)
linfa 'landare urtarra'	«...lekurik hostotsuenera, linfazo itzal gardenean barrena izpi hori zenbaiten geziak baino igaro ezin zitezkeen lekura...»	(19)
lizta	«...eta koloreko lizta matazak jira-biraka ibiltzen ziren xibak bezala...»	(105)
lo txinta 'lotarako gogoa' (?)	«...ustez harrapatuta zuen lo txinta hari ihes egiten ez uztearren, eserlekuan berriz etzatera abiatu zen lasterka.»	(24)
lokatu 'tinko ez dagoena'	«Marcovaldo, luze eta meharra, eta bere emazte Domitilla, lodi eta moztaka, komodin lokatu baten alde banatan ukondoa jarririk...»	(57)
lokazti 'basatza eremua'	«...korrontek bultzaturik, tarteka azalera irteten ziren lokaztietatik aldentzen zen...»	(45)
lupetsu 'basa bigun-biguna'	«...eskubilduan estutzen zuen; bustia zegoen, lupetsua zen, hondar lohitsu...»	(43)
lur zokor 'lur puska gogortua, mokila'	«...lurpeko zukuak irentsi eta lur zokorren azal zakarra apurtzen ari zirela.»	(16)
lurmendu 'urtu, gesaldu'	«...zenbat metro kubiko elur kendu beharko zituen hainbat metro karratu lurmen- tzeke ...»	(32)
makil-sare 'intsektu ehizarako tresna'	«...eskuan makil-sare bat hartuta, tximeletak harrapatzera zihoala zirudielarik.»	(126)
maluta 'elur malo'	«Ba, har ezak berriz ere hire palatxoaz, edo bestela azken malutaraino irentsaraziko diat.»	(33)
mami 'barneko gai biguna'	«... mami harroa ondu, lurpeko zukuak irentsi eta lur zokorren azal zakarra apurtzen ari zirela.»	(16)
mamurtu 'murtzikatu, mastekatu'	«Marcovaldo astiro mamurtzen hasi da orain: zumardiko eserleku batean dago...»	(50)




mandeulia 'asto-zaldien euli tematia'	«...mandeulirik ez zen zaldi bizkar batean, pipi zulorik mahai batean, piku azal zapalduarik espaloian...»	(15)
mansarda 'etxe mota' (?)	«Bizi ziren mansardako leihotik begira, Marcovaldoren etxekoen gogoan era guztietako burutazioak ari ziren joan eta etorri.»	(91)
marmar egin 'ahapeka haserreka hitzegin'	«Sardin lata batean bezala gaude dagoeneko etxe honetan — marmar egin zuen Domitilak—.»	(99)
marraskatu 'hokkada txikiz jan'	«...hozka egin zion serio-serio azenarioari eta bizkor hasi zen marraskatzen Marcovaldoren eskutik.»	(70)
marruma 'deiadar zoli eta bizia'	«...eta zakur bat zaunkaka, eta marruma labor bar ere bai.»	(64)
maskor 'molusku-oskoldunen atala'	«Hala, bada, kanila ireki zuen: zirrist luzeak altxatu ziren maskor , bizar eta zaldien muturzuloetatik...»	(24)
masusta 'sasien fruitua'	«...eta Michelino ere han zegoela, esne, ezti eta masusta artean alfer eta zoriontsu.»	(66)
mataza 'multzoa bezalakoak'	«Zerua, hala ere, ez zegoen oskarbi: hodei mataza batzuk, beltzak, barreiatuak zeuden apur bat hemen, apur bat han.»	(101)
menean 'menpe, aginduetara'	«...eta, halere, bazirudien nagusitu nahi zutela eta beren menean ezarri biztanle gabeko erreinu hura.»	(63)
menean 'eskuragarri, helmenean'	«...sukaldean-erabat argi eta atzaparren menean — txori lumatu edo arrain fresko gisa azaltzen zena.»	(126)
mitxina 'katua'	«Bere katu lagunaren atzetik, bazterrak mitxinaren begi biribilen bidez begiratzen hasia zen Marcovaldo...»	(124)
mototsa 'ile korapiloa'	«...makila bezain biluzik baizik, eta motots moduko bat azaltzen zuen gainaldean, palmondo itxura ematen ziona.»	(97)
muin 'burmuina'	« Muin frijituak ziren, bigun eta kizkurrak, hodei mataza bat bezalakoak.»	(51)
mutua 'osasun zerbitzua	«Zure erreumarako —esan zuen mutuako doktoreak—, hareazko bainu on batzuk egin beharko dituzu uda honetan.»	(43)
nabaritu 'igarri, somatu'	«Farolen argi-ilunean nabaritzen zituen bultza eta kirrinka ari zen garabia...»	(24)
ninfa 'jainkosa'	«...jausi eta zirristak txirikordatzen zituzten ninfa , fauno eta ibaietako jainkoak zeuzkana.»	(24)
ñabarra 'ilun xamarra'	«...ordurako bere kasa moldatzen ari zelako ideia horiek egiaztatzeko eta adar otzanak bizkarrak eta papar ñabarrak ikusteko.»	(65)
ñañoa 'txiki-txikia, kakanarrua'	«...eta honetatik zintzilik palmondo ñañoak , mantelak, kristaleriak, eta kanpaien antzerako kuboak...»	(125)
ñir-ñir egin 'dizdira egin, distiratsu jarri'	«...eta Viligelmo jaunari ñir-ñir egin zioten begiek, aspalditik ehiztaria baitzen.»	(28)
ohiz 'normalean, eskuarki'	«Begiak zorrotzuz, zurtasunaren erdian ia ezabatuta zeuden lerro batzuei erreparatu zien; ohiz ikusten zituen gauzak ziren...»	(31)
oilagor 'moko luzedun txoria'	«Behinola, hala ere, udazkeneko oilagor batzuk azaldu ziren kale bateko zeru pusketan hegan.»	(27)
oldar 'inpetua, indarra'	«...barruko grina horien oldarra bihozberatasun bultzada bilakatu zitzaion.»	(18)
oldartu 'erasoan bezala etorri'	«...beste bi liztor handi oldartu zitzaizkion buruan heldu nahian bezala.»	(40)
oparo 'betea'	«...Marcovaldori iruditu zitzaion bere inguruko mundu hits hutsala ezkutuko aberastasunez oparo bilakatzen zela bat-batean...»	(16)
osin 'zulo sakona'	«...ur isila ikusi zuen —ibai hegal bat zen, urtegi txiki lasai bat ia—, mendiko osin bat zirudiena, urdin hutsa baitzen.»	(88)



oskarbi 'zeru garbia, hodei gabe'	«Zerua, hala ere, ez zegoen oskarbi : hodei mataza batzuk, beltzak, barreiaturik zeuden apur bat hemen, apur bat han.»	(101)
ostadar 'ortzadarra, ostarkua'	«Kaleen barrenaldean, etxarteetan, halako ostadar argi lauso bat pausatu zen.»	(103)
paparo 'papar handitua'	«...pelikanoenaren antzeko paparo bat altxatzen zuten, ibai hondoko lokatz beltza tantaka zeriela.»	(43)
parrastan 'multzokadan'	«Tiragoma hartu (...) harrixoez bete, eta indar oso-osoaz harri txintxarrak jaurti zizkion parrastan GNAC hari.»	(93)
pausaje 'mugimendu dorpea, motela'	«Marcovaldo, elurrezko gizon baten pausaje astunarekin, han jartzera joan zen.»	(35)
pentu 'animalien janari lehorra'	«...honelako harrak jaten dituzten txoriak erakartzeko pentu , edo bestela entsalada edo txori erreak prantatzeko osagaiak.»	(107)
pipi 'bipia, sitsa, intsektu zurjalea'	«...mandeulirik ez zen zaldi bizkar batean, pipi zulorik mahai batean, piku azal zapalduarik espaloian...»	(15)
plisti-plasta zipristinak ateraz eginiko hots	«...eta han zeuden umeak, klase osoak bildurik, plisti-plasta uretan...»	(47)
pott egin 'hondatu, akabatu'	«Eta bere ahotseko etsipena ez zen etxekoei eman nahi zien sorpresak pott egin zuelako bakarrik...»	(138)
prantatu 'prestatu'	«Zergatik gustatzen ote zaidak hemen topatzea emazteak prantatzen duenaren zaporea, eta ez ordea etxean...»	(50)
pretil 'espaloietan'	«Momentu hartan zubia ikusi zuen; eta pretilak apaintzen zituzten estatua eta farolengatik...»	(46)
sahasti 'sahats arbola ugariko lekua'	«Bidezidorretatik sartzen zen, sahasti artetik, ziklomotorrean ahal zuen bitartean...»	(88)
sarats 'zuhaitz mota'	«...eta palaz kargatzen zuten gabarra beltz zapal batean; almadia antzeko zerbait zen, sarats bati lotuta zegoena ur gainean.»	(44)
sarkofago 'hildakoen harri-kutxa landua'	«—Zoazte orain hemendik! —bafatu zuen Marcovaldok bere hareazko sarkofago azpitik—.»	(45)
sonanbulu 'lo egonik ibili egiten dena'	«Marcovaldo inguruetatik ibili zen, sonanbulu bat bezala ia...»	(24)
sor eta lor 'mugimendurik gabe'	«Txoriek, sor eta lor , lotan jarraitzen zuten goian, hosto artean.»	(23)
sos 'txakurrandia, dirua'	«...baina merkantzia guzti horietatik sos bat ere ezin zen eskuratu; opariz ematen diren gauzak ziren, iturriko ura bezala.»	(114)
su eta gar 'jo eta ke, afanean'	«Baina su eta gar ari ziren ezin gehiago eztabaidan, eta ezin berataz ohartu.»	(20)
suspertu 'bizitu, animatu'	«...ez, ordea, inbidia eragiteko asmoz, baizik eta bihotza suspertzeko doinua erabiltzeak ematen duen atseginagatik.»	(69)
tarrapatan 'arrapaladan, sosegu gabe'	«...eta guztiak ikusi zituen, trenen antzera beren bagoiak bultzatuz, orpoz orpo tarrapatan zebiltzalarik.»	(108)
tematu 'setatu, lehiatu'	«Bazirudien elkarren etsai ziren marka guzti haietako hauts haiek norgehiagoka ari zirela tematurik , haien aparra egiteko...»	(115)
tenkatu 'tenk jarria, irmo'	«Taldeka zetozen, batzuk ozenki hizketan edo barrez, makila belar artean tenkatuz edo arrastaka...»	(60)
tenkaz 'arrain mota'	«...berak bakarrik ezagutzen zuen eta tenkaz beterik zegoen leku baten berri emateko aginduz bakoitzari...»	(88)
tinkaturik 'tinko jarririk'	«Kalegarbitzaile bat zen, erratzean tinkaturik begiratzen ziona.»	(17)
totelka 'hitzak trabatuz'	«Zer edo zer esan zuen totelka : berak hiru silaba esan orduko, gaztetxo hura oldartu egiten zen...»	(121)



traza 'itxura, jitea'	«...eta orain entzun eta gero ezabatzen diren ahots horiek halako ezkutuko zerbaiten traza izaten dute...»	(22)
ttun-ttuna joz 'soinua ateraz'	«...muxika poteak eta oliotan jarritako antxoa latak ttun-ttuna joz erortzen uzten zituzten gurditxo barrura.»	(106)
tupustean 'ustekabean, bat-batean'	«Horrela, bada, gau batez tupustean jaiki eta eseri zen ohean...»	(66)
txapela gorarik 'tente, burua zut, dandai'	« Zizak han zeuden, oin gainean zut, txapela gorarik lur oraindik bustiaren gainean.»	(17)
txilin 'kanpaitxoa'	«Tranbia iritsi zen, mamu baten antzera itzal bihurturik, txilinari geldiro eraginez...»	(80)
txima 'ile luzeska sortatxoa'	« Tximetatik heldu eta ohean sarrarazi zuten.»	(95)
txingar 'gori dagoen erregaia'	«...begira zeuden estufan txingarrak nola hiltzen ziren eta ahotik arnasaldi bakoitzean hodeitxoak nola irteten zitzaizkien.»	(53)
txintxar 'harri txikia'	«Tiragoma hartu (...) harrixoez bete, eta indar oso-osoaz harri txintxarrak jaurti zizkion parrastan GNAC hari.»	(93)
txirikordatu 'trentzatu'	«...jausi eta zirristak txirikordatzen zituzten ninfa, fauno eta ibaietako jainkoak zeuzkana.»	(24)
txirrika 'txirringa, polea'	«...zabor meta gainean zutituriko gizonak, txirrikatik eskegitako ontzia eskuz gida- tzen...»	(24)
txiruliruli 'doinua'	«...eta hauxe da, hauxe batez ere —zarrabeteen txiruliruliak gogoratzen digun bezala—, axola duena.»	(136)
txorabilduta 'zorabioaturik'	«Loagatik erdi txorabilduta zetorren.»	(67)
udamin 'uda-uda, aldirik beroena'	«Hiriko udamin hautseztuan, gogoan bere seme dohatsua harturik zebilen Marcovaldo...»	(66)
ufako 'putza, airea indarrez bota'	«...aski zuen miau bat, ufako bat edo bizkar altxatu bateko ilaje lastua, haien arteko (...) etsaitasunaz konturatzeko.»	(125)
ujier	«Kapela ugari kendu ziren atezain, ujier eta mandatarien artean...»	(34)
ulu 'auhena, uhuria'	«Kanpoan anbulantzia bat zegoen zain; bizkor sartu barrura, eta sirena ulu etengabeaz...»	(73)
uluka 'ulu egiten'	«Iluntasun hartan, otsoa aditzen zen uluka nonbait; erbikumeek elurpean ezkutatua zeukaten gordelekua...»	(143)
urdin 'zuri bihurtua'	«...katu lodi bat zen, ile motots urdin argi bat zuena lepoan, eta, dudarik gabe, etxe onekoa.»	(124)
urmahel 'lorategietako estankea'	«...eta berunezko landa bat iruditu zitzaion, urmahelko ura bezain geldia...»	(59)
urretxindorra 'txori kantaria'	« Urretxindorrak iruditzen zitzaizkion berari...»	(19)
uxatu 'aldendu'	«Zaborrak eragindako buruhaustea uxatu eta lo egin zuen.»	(25)
uzkur 'purrustari, gogo txarrez'	«...elkarri lapurtuz eta untxia arrastaka eramanez, uzkur eta erdi itoa.»	(74)
xafla 'zati mehe-zabala' (<i>plancha</i>)	«...itxuraz kristal argitu bat zen; haren gainean iluntasuneko xafla bat jausi zen, burdinazko pertsiana baten antzera.»	(81)
xelebre 'bitxia, ezohizkoa'	«Enbor mehe-meheak zeukaten, zuzen eta makurrak; adaburuak zapal eta zabal, itxurarik xelebreenetakoak ...»	(54)
xiba	«...eta kolorezko lizta matazak jira-biraka ibiltzen ziren xibak bezala...»	(105)



zakar 'latza, gogorra'	«...kaleko zuhaitzian barrenaluzatzen den lur antzu zakarrean ...»	(16)
zarpailduta 'zikin eta apurtuta'	«...galtza barrenak zarpailduta zeuzkaten, belauen parean, hanka-oinak biluzik utzita.»	(44)
zarrabete 'txistu antzeko musika tresna'	« Zarrabeteen doinu dardartia entzuten da kaleetatik igotzen...»	(135)
zartatu 'urratu, arrakaldu'	«...edota pasealekuetako zuhaitzen sustraiak ugaldtu eta galtzadetako zoladura zartatzea .»	(120)
zikoitz 'zekena, lukurrerua'	«...batzuen ustez aingeruen parekoa zen, besteen ustez zikoitza eta berekoa.»	(130)
zingaro 'ijito hungariarra'	«Biolin zingaroen soinura, jira eta bira zebiltzan urrezko eper eta galaperrak...»	(125)
zingiratsu 'paduratsua'	«...ikusitako filmeko istorioa Indiako oihanetan gertatzen zen: sasitza zingiratsutik lurrin hodeiak altxatzen ziren...»	(79)
zintzarri 'joarea, animalien kanpaitxoia'	«...ganoraz agertzen ziren aurrean jarririk, muturra zuzen-zuzen, zintzarriak txin-txin, lanari adi...»	(64)
zirimola 'zurrumbilota'	«...draga makinek zulatu duten ibai hondoan ura zirimolan edo zurrumbilotan iresten dutenak.»	(44)
zirimolatu 'pilatuta bildu, zurrumbilotan'	«Eta gero, nahas-mahas pilaturik zirimolatzen ziren kutxa inguruan paketetzar (...) poltsa eta poltsatxoak...»	(106)
zirpil 'litsa' (<i>tira</i>)	«...teilatuetako ezkata ugarietz eta tximinietako ahoetan haizearekin kulunkan agertzen ziren ke zirpilez estalia.»	(59)
ziza 'kapelatxodun ondo, perretxiko'	«...halako espora bolada bat gertatu zen, haizeak auskalo nondik ekarria, eta zizak hazi ziren bertan.»	(15)
zomorro 'intsektu hegalaria zaratatsua'	«...eta begiaz jarraitzen zion inguruan hegan zebilkion edozein zomorreri .»	(38)
zozoarena egin 'inozokeriak, lelokeriak egin'	«Zerbait badakizu, hobe duzu zozoarena ez egitea .»	(73)
zurrundu 'gogortua'	«Lehen tenedorekadak janari zurrundu haiek zertxobait itzartzeko balio dute...»	(49)
zurrungaka 'kurrunka egiten'	«Gau batean, isil-isilik, emaztea zurrungaka eta umek lotan hankei eragiten ziharduten bitartean...»	(20)
zuztar 'zurtoina'	«Etxean eduki ohi diren landare berde hoietako bat zen, zuztar mehe zuzen bat...»	(97)